



## **HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA**

**Data:** 2018/03/14

**Bilera zenbakia:** 03

**Bilera ordua eta lekua:** 19:00etan udaletxean

**Parte-hartzaileak:** Rosi, Nekane, Marijo, Tere, Xabi eta Maddi

## **LANDUTAKO GAI ORDENA**

### **1. ONGIZATE BATZORDEAREN PROPOSAMENA**

Aurten Berdintasunaren gaia landuko dutela eta, herriko elkarte eta eragileekin ere lanketa egin nahi dute eta horretarako, 2019ko egutegia berdintasunaren inguruko argazkiekin osatu nahi dute, hauetan elkarte nahiz eragileetako jendeak parte hartzea nahi dutelarik. Oraindik proposamen ez dute erabat landuta, ideia besterik ez da, baina eragileekin konpartitu nahi izan dute hauen iritzia ezagutzeko. Jende ados agertu da, ideia ona iruditu zaie eta guzti honekin ekaina aldera hastea aurreikusten da, Ongizate batzordekoak jarriko direlarik kontaktuan elkarteetako kideekin.

### **2. KULTUR AGENDAREN ERREPASOA**

#### **- Sukalde tailerra**

Oso ondo baloratzen da bai kuantitatiboki eta baita kualitatiboki ere. 18 pertsonak eman zuten izena eta errepikatzeko gogoz geratu ziren. Egia da askoz jende gehiago apuntatzea ere ez dela komeni, izan ere, sukaldean aritzeko kopuruz nahikoak ziren.

Perfil desberdinetako jendea gerturatu zen, gizonezkoak eta emakumezkoak, baina gazteak falta bota ziren. Iker ere oso gustura aritu zen, beste baterako prest agertu zelarik. Egia da berak lehenago joan behar izan zuela, hurrengo egunean lana baitzeukan, beraz, hurrengorako bere agenda kontuan izan beharko dugu.

Honekin batera komentatu da Iker beti dagoela prest edozertan laguntzeko eta besteren batean eskertu bazaio ere, polita izango litzatekeela San Juan egunean adibidez omenalditxo bat egitea, dantzaren bat prestatu... Gaia kultura batzordera pasako dugu.

#### **- Martxoak 10eko bazkaria**

Oso ondo atera zen dena. Eguerdian batukadak asko alaitu zuen plaza eta ondoren bazkaria ere primeran joan zen. Bertso saioak asko luzatu zuen bazkaria eta orokorrean jendea oso gustura egon zen, primerako saioa izan baitzen. Hala ere, horrelakoak kontuan izan behar ditugu astebarrua bada, izan ere, ezingo ginateke hainbeste luzatu, jendeak presa izaten baitu,

Bestalde, aurten jubilatutako elkarteko juntan dauden emakumeei eman diegu oroigarria eta momentu horretan aurrez juntan egondako batek kexa adierazi bazuen ere, ilusio handia egin zien eta gustura jaso zuten. Beste gaia kultura batzordean hitz egingo da.

## HEMENDIK AURRERAKOAK

### - Aste santuetako bigarren astean ipuin kontalaria- zehaztu gabe

Plangintzan zehazten den moduan, irakurzaletasuna sustatzeko ipuin kontalari bat egitekotan gaude aste santu inguruan. Horretarako guraso elkarteari laguntza eskatuko diogu eta beraiekin adosturiko bat aukeratuko dugu.

### 3. KOMUNIAZIOAREN GAIA LANDU DUGU

Aurrekoan hitz egindakoa kontuan hartuta Maddik komunikazio kanpainak egiteko plantilla bat sortu du. Bertan aurrekoan aipatutako alderdi guztiak sartu dira eta udala nahiz eragileen arteko komunikazioa errazteko asmoz, dokumentua modu digitalean ere sortu da.

Printzipioz ongi ikusi da sortutako diseinua, beraz, horrekin hasiko gara eta zerbait faltan edo soberan sumatzen bada jakinarazi eta aldatuko dugu.

### 4. HERRI PROIEKTUAREN NONDIK NORAKOAK

Herri Eskola eta Haurren Herria foroa elkarturik aurrera daramagun Herri Proiektua azaldu zaie eragileetako ordezkariari honen berri izateko asmoarekin.

ETXEKO LANAK	NORK	NOIZKO
<b>HURRENGO BILERA</b>		
Hurrengo bilera <b>APIRIL</b> aren 11an izango da. GAIA: <b>EUSKARA TALDEA</b>		